

Normalitatearen eriak

Saioa Iraola

Normalitatea bazen, gizonak, oro har, ordaindutako lanera joatea, etxerainoko bidea egitea eta lo egitea; emakumeak, aldiz, etxean eta etxe inguruko lanetan zein zaintza lanean aritzea eta lo egitea. Egun normalitatea arbitraritatean oinarritzen da, ohiz kanpokoak hausten du norma; kasu, Foucalten arabera, normalitatea “anormalaren” arabera definitzen da. Egun, anormalaren figura atzean utzi dugu eta galdetzen dihardugu zein den normalitatean bizitzearen kostua, prezioa.

Normala da: 30 urte ingurutan ezkondua egotea, umeak edukitzea, hipoteka batean leporaino zorpetuta zauden arren etxe ponpoxo baten jabe izatea, etxeko guztiek auto bana izatea, supermerkatuan erosketak egitea, heterosexuala izatea... Aldiz, anomalia gisa geure burua onartzeak, jendarte honetan kabidarik ez izatea badakar; zehatzago esanda, bizitzaren normalitate programatuan ez sartu nahi izateak, haustura horrek, anomaloan posizio politikoa kolektibizatu lezake.

Baina normalaren-anomaliaren arteko talka oinarri duen jendarte honetan, hutsuneari eta etsipenari lotutako gaixotasunak areagotzen ari dira, kasu, depresioa, antsietatea, anorexia... Ugaritasunaren miseria, aldi bereko den miseriaren oparotasunean datza. Horrela, beldurraren bitartez, prekariedade existentzialaren ispilu diren nia-k, zu-ak eta gu-ak erreproduzitzen ari gara.

Bada, normalitatea, askotan naturalizazioaren bidelagun kokatzen zaigu. Adibide bat jartzearen: aurreko astean, larunbat iluntzean etxean geundela, gure txakur Lutziren zaunka ezohikoan zebilen jo eta su. Kanpora irten eta txakur ar bati lotua zen. Ahaleginak egin ondoren lortu genituen banatzea. Urduri jarri ginen. Txakur arra zeinena ote zen eta... joan nintzen ustez auzokoaren txakurra zelakoan ate joka. Txakur jabeak adierazi zidan ez zela berea, harena emea zela. Ados, eskerrak eman nizkion eta etxeratzeako asmotan nintzela zera galdetu zidan: «Baina, arra izan balitz ere, zertara etorri zara?». «Bada, gertatu denaren berri ematera».

Harriduraz eta larderiaz erantzun zidan, txakur emearen jabe denak ardura askoz handiagoa behar duela izan, eta arraren jabea inoiz ez dela arduratuko txortaldiaren ondorioez. Eta hori gutxi balitz, jarraitu zuen alderaketa eginez, «pertsonetan gertatu ohi den moduan, mutil batek haurdu utzi duen neska baten kasuan, joan zaitez haren gurasoengana edota mutilarengana jaioko den haurraren inguruko ardurak exijitzera, ez duzu zer eginik. Inozentziaz ari zara... Hori ‘normala da, natura da’» erantzun zidan. Naturaren izenean normalizatutako injustizien justifikazio argia eginez.

Bada, zorionez, normalitatearen eritasunetatik sendatu eta bertan bizi nahi ez dugun anomaloogero eta gehiago gara, piztiaren sabelean pitzadurak eraginez, bizitzeko hautua eginez. Normalitatean bizi nahi ez izatearen preziorik garestiena, bizi nahi izatea baita. •

Maskulinotasunak

Joxean Agirre

Seme batek esan dit asteazken gauetan ez dagoe-la libre Gizonezkoen Taldea duelako. Besteari eman diot abisua eta komentatu dit bere lagun bat Gizonduz taldean dabilela. «Alajainkoa!» atera zait, gizonezko guztiak maskulinotasun berri baten bila hasi balira bezala. Baina ez da horrenbesterako. Gizonezkoen faunaren barruan espezimen klasikoa da oraindik nagusi, balore patriarkalen zaindaria.

Baina maskulinotasun berrien eta klasikoaren artean badago eredu bat mutilzahartasun moderatua deituko nukeena. Ez dira, noski, mutilzahar klasikoak, hori moztade gisa ikusten da gaur, modernoagoak baizik. Nik neu ere azkenaldi honetan emozioen inguruan entzuten ditudan diskurtsoak entzunda (“Bertsolari” al-dizkariko “Emozioak bertsogintzan” erreportajeko zen-bait aitopen pozik aipatuko nituzke lekuri balego) mutilzahartasun moderatu honekin identifikatzen ha-sita nago eta eslogan modura zera errepikatu ohi dut: «Hamar aldiz ezkondua ere batzuk mutilzahar izango gaituk», eta, esaldia, luze samarra bada ere, manifestal-di baterako aldarria izan litekeela iruditzen zait. «Mutilzahartasuna ez da egoera bat, izaera bat baizik», ate-ratzen zait ondoren eta teoria berri baten atarian nagoela iruditzen zait. Mutilzahar moderatu deitzen ditudan hauek ezkonduak dira gehienak, nahiz eta ez duten derrigor izan behar. Sastrearen esaldi matxista sa-mar harekin gogoratzen naiz: «Nahiago dut emakume batekin txorakeriak esanez afaldu, Aragonekin filoso-fiaz hitz egiten baino», eta geu ere orain hogeita hamar urte emakumerik gabeko afariei iskin egiten ibiltzen ginela gogoratu dut. Orain koadrilla osoak ikusten di-tut astero afari maskulinoak egiten. Mutilzahar mode-ratuok solidarioak dira eta genero berdintasunaren al-dekoak, baina ez dituzte balore femenino guztiak, femeninoak direlako, bereganatu nahi: ez dira, esate baterako, biluztu eta emozioak jaulki zale. Koldo Mitxe-lenaren amarena egiten dugu geure, semea espetxetik etxera etorri eta atea zabaldu zuenean, «etorri al haiz?» esan baitzion soilik eta esaldi horrek Colemanen jarrai-tzaileen hamar besarkada baino emozio gehiago adie-razten duela iruditzen zaigu. Demagun artea, batzuek dioten bezala, emozioen erlijioa dela, baina emozioak nola adierazi da kontua eta horretan zeharbideen zale-ak gara, harreman erromantikoekiko uzkur samarrak edo etsiak eta konpromisoari fobia diogu. Horrek ez du esan nahi mutilzahar moderatu hauek emakume bate-kin ez dutenik inoiz bururik galduko, salbuespen gisa.

Eva Illouz soziologo marxistaren hiru liburu irakurri ditut berriki, horietako bat bikaina. Bere soziologia gai da oheraino sartu eta harreman intimo eta erromanti-koetan gurutzatzen diren eredu zahar eta berriak azter-tzeko. Berdintasun gehiegizkoa erotismoaren kontra-koa dela esateraino iristen da. «Emozioez hitz egiteko adiskideak badauzkat», dio lekuko gisa darabilen ema-kumeetako batek. Erotismoaren arlo horretan nire mu-tilzahar moderatuak ez direla gaizki gelditzen esango nuke. Baina gai korapilatsuak dira hauek. Buka deza-dan. Eta al, ahaztu egiten zitzaidan, ostiraletan ez nago libre, gizonezkoen afaria dut. •